

gizartea eta kultura garaikidea

APIRILA MAIATZA EKAINA 2022



Jar zaitez harremanetan Az-rekin

info@azkunazentroa.eus



Lege gordailua BI-249-2014

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

ARTE BISUALAK / INSTALAZIOA

EKA. 16 > URR. 30

Antonio Fernández Alvira

Memoria de forma


Antonio Fernández artistak *Memoria de forma* instalazioa sortu du Azkuna Zentroko Terrazako espazio zehatzerako. Eskultura- eta instalazio-formulazioaren arabera planteatutako laborategia da; edukiontzia eta jariakinaren arteko erlazioa aztertzen du, eta, orobat, gorputzaren eta arkitekturaren arteko erlazioa hurbiltzen du.

Zentroak ekoiztako proiektuaren abiapuntua Azkuna Zentroaren arkitektura eta esanahia dira, haren elementu eta formen bidez, eta ontzien edukiontzi gisa hartuta. Sortzailearen arabera, leku horretan «jariakina eta iragazkorra beti egon dira presente, hala lehen ardo-biltegia zenean, nola orain, kulturaren edukiontzi iragazkor gisa».

Laborategi honen helburua da «ariketak antolatzea lekuaren eta publikoaren bidez; terrazako arkitekturarekin interakzioan eta elkarrizketan jardunez, espazioarekin egindako miaketa formal eta prozesualen ondorioz, eta publikoaren esperientziaren eta pertzepzioaren bidez, haren mugimendu eta ibilbideen bidez», azaldu du artistak.

Artistaren egungo praktika artistikoari lotutako prozesuen bidez, burdinak, zeramikak, erretxinek eta antzeko materialek osatzen dute instalazioa.

ANTONIO FERNÁNDEZ (Huesca 1977). Arte Ederretan lizentziaduna UPV/EHU. Haren obra hainbat museo eta instituziotan egon da ikusgai, estatuan zein nazioartean. Hainbat sari eta beka jaso ditu, eta gaur egun House of Chappaz galeriak ordezkutzen du. Honako hauetan parte hartu du: ARCO azokan eta CA2Meko #metroymedio, Aragon Park (Madril) eta Mayenneko (Frantzia) Nuit Blanche proiektuetan.



////////////////////////////////////

Ekainaren 16tik urriaren 30era
Terraza

////////////////////////////////////

 antoniofernandezalvira.com

 [antoniofernandezalvira](https://www.instagram.com/antoniofernandezalvira)

 [antonio fernandez alvira](https://www.facebook.com/antoniofernandezalvira)

 [AntonioFAlvira](https://twitter.com/AntonioFAlvira)